

Funtsezko sozietateak

Gure hornitzaile nagusiak bi enpresa dira. Alde batetik, kalitate altuko kristalak bermatzen dizkigun enpresa “D’espejo” izenekoa. Beste aldetik, lurrina edo perfumea erosten dugun enpresa “Laboratorios Tegur SLK” izenekoa.



Bi enpresa hauek guk aukeratutako ezaugarri zehatzak betetzen dituztela arduratu gara. Produktua ona izateaz gain eta kalitate handikoa izateaz, hainbat jarraibide bete behar dituzte. Bai balore aldetik eta bai kalitate aldetik. Horregatik, kristal ekoizpena asko kutsatzen duen sektorea denez, ziurtatu gara aukeratutako enpresek materiala birziklatzen dutela hauen ekoizpenerako.

Era berean, kutsadura gaiarekin jarraituz **Km 0-ko produktuak** izatea gustatuko litzaiguke. Horregatik, Bilbokoak dira bi enpresak. Gainera, negozio-eredua optimizatuko luke, gertu dagoen enpresa bat izanda produktiboagoak izango ginatekelako garraio kostuak murrizteaz gain. Honi esker, diru gehiago inbertitzeko ahalmena izango genuke produktuaren ekoizpenean. Horrez gain, guk operatzen dugun eremuetan lanak sortuko genituzke.



Azkenik, enpresan **langileen banaketa** honako hau izango litzake:

- June Muguruza: Marketing eta online zerbitzuaren kudeaketa
- Mohcine: Diseinua eta markaren burua
- Anuska eta June Galarraga: Produktua eraiki eta bidaltzeko prestatu

Langile bakoitzari egin behar zehatz bat eman diogu **produktibitatea handitzeko**. Gainera, langile bakoitza jarduera batean espezializatzean esperientzia irabaziko genuke aukeratutako eremuetan eta horrela efizienteagoak izango ginateke.